



ARESOko UDALA

ALKATEAREN BANDOA

2018ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BEGIRA ARESOKO UDAL- TALDEAK ADOSTUTAKO ADIERAZPENA

Honen bitartez, Aresoko Udalak jakinarazten du:

2018ko Emakumeen Nazioarteko Egunari, martxoak 8ri begira, Aresoko udal- taldeak "DENBORA BIZITZA BADA, EGUNERO ZENBAT BIZI ZARA?" adierazpena onartu duela, zeinetan ondorengo konpromisoak hartzen dituen:

- *Berdintasun-politikak sustatzen jarraitzea tokiko erakundeetatik.*
- *Gure hiriko emakumeen behar zehatzak ikusarazten eta egun indarrean jarraitzen duten*
- *desberdintasun adierazpen guztiei dagozkien neurriak hartzen jarraitzea.*
- *Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun egoera guztiak gainditzeko jarduerak ezartzea.*
- *Mugimendu feministari laguntzea bere borroka eta eskaeretan.*

Horietaz gain, Aresoko udaleko langilen greba eskubidea errespetatzeko asmoz, Martxoaren 8an, udal bulegoa publikoari itxita egongo dela erabaki du, eta horrela adierazten die herritarrei.

Azkenik, Aresoko bizilagun guztiei egun honen inguruan egongo diren deialdietara joateko gonbitea luzatu nahi die.

Areson, 2018ko otsailaren 22an
Alkateak,

Ur Alguero Chivite